

Erreportaia berziklapenaren garrantziaz
Sutondoaren epelean Atzegi elkartearen kanpaina berria


Atzegi

pilean

SORALUZKO
HAMABOSTEKARIA
113. alea, 2005ko
ekainaren 10ean

Psikodelia Ongal rokanrolin Plaentxin






Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefonoa: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE

MENDATA taberna



- Pizzak ●
- Bokadilloak ●
- Kazuelitak ●
- Razioak ●

sukaldetik
zure
etxera!!

ostirala 08:30 - 22:30
larunbata 08:30 - 22:30
igandea 08:30 - 22:00

Tel.: 943 75 1387



MIREN LURDES PASTORIZA

Genero biolentzia dela eta

2004

ko abenduaren 29an onartu zen genero biolentziaren aurkako legea eta ordutik aurrera etengabe ikusten eta entzuten hasi dira emakumeek jasaten dituzten eraso eta maltratoak baina lege honek aurreikusten ez duena zera da, emakumeen eskuetan jarri duen arma.

Honen helburu nagusia legea ahalik eta arinen aplikatzea zen baina agertzen diren kasuetan zenbatetan agertzen da egia borobila?, hori da jakin ez dezakeguna, ze hemen kontutan hartzen dena emaztearen hitza baino ez da, eta horri esker jakin dugu senarraren aitortpena ez dela aintzat hartzen, emazteak legea bere alde baitauka. Izan ere, nahiz egunkari nahiz irrati-telebista nahiz interneten lege honen alderdi izkutua ezagutu dugu, ze hainbatetan emazteak hauxe erabiltzen du ahalbait eta laguntza gehien lortzearen edonolako gezurrak kontatu behar baditu ere. Hau argitzeko eta adibide gisa kasu bat kontatzera noakizue.

Duela hilabete batzuk gure ezagun batek lanetik itzultzean sekulako ustekabea jaso zuen, etxera heldutakoan aitak esan zion bere emazteak semea eta guzti alde egin zuela. Hori gutxi balitz, ertzainetxetik dei bat jaso zuen esanez ezin zela bere emaztearekin harremanetan jarri eta hurrengo egunean bertaratu behar behar zuela berorrek ezarri zion salaketaren bila. Horrela hasi zen gizon honentzat, oraindik dirauen gurutzbidea. Emazteak zioenaren arabera, senarra eta beronen aitarengandik maltrato psikologikoa jasaten egon omen zen umea jaio zenez geroztik. Handik hiru egunetara, orain egiten diren epaiketa arin horietako batean emaztearen eta haren ahizparen deklarazioei esker urruntasun agindua ezarri zioten bai senarrari baita beronen aitari ere eta semearen mantenturako bere soldataren %30a. Prozesu honetan hainbat epaiketa izan ondoren, laugarren hilabetean senarraren senide batek aitortuta haien bizimodua 15 urtetan arrunta izan zela lortu zen urruntasun agindua bertan behera utzea. dena den, ezin dezaket aipatu gabe utzi, bien bitartean senarrak ezin izan zuela bere semea ikusi emazteak etxetik alde egin eta hiru hilabete igaro ziren arte. Horrez gain, egoera hau aurrera zihoan neurrian emazteak sekulakoak egin zituen bere senarra gartzelaratu izan zedin.

Ondorioz, galdera hau egin beharko genieke geure agintariei: emakumeak defendatzearen aldeko legea premiazkoa zen baina non geratzen da gizonak defendatzearen aldekoa? Ez gara denbora guztian gizon eta emakumezkoen eskubideak berdinak direla esaten ari? Beraz, horra hor neure kezka.

Telegrapak

Aufalio!. Stop zer bizimodu?. Stop ez ixuri kipula malkorik mesedez!. Stop herrixa bixi-bixi dago behintzat. Stop Eko-astia izan dogu aste honetan. Stop Debegeesak antolatuta. Stop joku eta abar... Stop ibaixa ezagutzeko irteera bat be iragarri dabe. Stop eta izena emoteko epia zabalik dago. Stop ideia edarrak dira horrek. Stop lehenengo ezagutu egin bihar da gero maitatu eta zaintzeko. Stop baina alderantzizkoa be ez litzake txarra. Stop lehenengo zaindu eta gero maitatu. Stop txixixak ginanetik entzun izan dogu garbituko dala. Stop baina beti zikin. Stop beti usain txarrez dago. Stop herrixak maitte zeban ibaixa. Stop hil eben fabriketako aziduak. Stop eta oin administraziñuak antolatu bihar dittu bisitak ibaixa ezagutzeko. Stop gaitzerdi edo!. Stop gaiz aldatuta. Stop parkietan ziburu barrixak ipini bihar ei dittu Udalak. Stop danetan gainera. Stop 80.000 euro. Stop gogoratzen naiz guk lurretan jolasten genduala. Stop oin ez dago lurrik parkietan. Stop gogoratzen naiz San Juan surako traste batzen ibiltzen ginala garai hontan. Stop oin ezin leike. Stop eta frontoia eta kaliak autoz beteta dare. Stop eta kiroldegi gaina eta "u" hutsik. Stop baina bizi gara. Stop ustez inoiz baino hobeto. Stop Galipoteko zubixak hor dirau behintzat. Stop eta aurtan be jaixak egingo dira kale estu horretan. Stop eta ahoberuendako lehiaketa bat. Stop eta rock talde berri bat sortu da neskak osatuta. Stop eta ezinduei laguntzeko boluntarixoa bila dabiz. Stop eta hainbat ekitaldi dago Gaztetxian. Stop oindio zementuak ez dittu gure bihotzak guztiz tapau!. Stop gora bihotzak!. Stop aurrera bolie eta Bolivia!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte
Frontoi Kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Sorluze.
Telefonia 943 75 13 04
comunidad: kzgunea.net/PilPileanKulturaElkarte/EU
E-mail: pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua:

Egoitz Unamuno
Erredaktoreak: Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugartz Catalan,
Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka
Salaberria eta Egoitz Unamuno.

Publizitatea:

Ugaitz Catalan
Logotipoa: Jon Gabillondo
Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena: 1.920 ale
Inprimategia: Gertu Koop.
Azala: Silvio Vaz Caro
Diseinua eta Maketazioa: Silvio Vaz Caro
I.Z.K.-a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Pil-Pilean Kultura Elkarreak ez du bere gain hartzen aldizkariaren esanien eta iritzien erantzukizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



Erreportaia

Bilketa selektiboaz ari garenean, herritarrak berak dira produktu berreskuragarriak sailkatzen dituztenak, zabor desberdinak dagozkien edukiontzietan utziaz.

Zorion agurrak



Garazi Aizpurua

Ekainaren 12an, 2 urte

Zorionak eta mua !

Etxekoen partez, Ane, Aita eta Ama



Elena Sierra

Ekainaren 24an, 2 urte.

Zorionak potxola !

Familia eta Lagunen partez



Naiara Martin

Ekainaren 11an

Zorionak !

Lagunen eta Edurtza kafetegikoan partetik, segi betiko moduan.



Mikel Oregi

Ekainak 14an, 7 urte.

Zorionak !

Nahiz eta ez irabazi guretzat txapeldun



Informazio gehiago
900 110 111 doako telefonon
www.gipuzkoa.net/gazteria
Buletinen harpidetza !!!

lana

Bolsa. Gipuzkoako Foru Aldundia. Lan poltsa Eibarko Zentru Gerontologikoan. Epe laburreko lanaldiak. Epea: Ekainaren 23a.

Administraria. Mutrikuko Udalean diru-bilketarako Administrari-lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa. Epea: Ekainak 23

Itzultzaileak. Zizurkilgo Udalean aldi baterako sortzen diren hutsuneak betetzeko administrari-itzultzaileen lan-poltsa sortzeko oposizio-lehiaketa. Ekainak 21

ikastaroak

Lan bilaketa. Nazaret Zentroa. Lana bilatzeko ikastaroa. 20 ordu. Ekainaren 13tik 23ra. 25 urtetik gorako pertsonentzat. Epea: Plaza guztiak bete arte.

Hizkuntzak. Deustuko Unibertsitatea. Ikastaro intentsiboa: frantsesa, ingeleza, italiara, txinera, mandarina... Epea: maiatzaren 23tik ekainaren 23ra.

Kintadia



Argazkian, 1955ean jaiotakoak Txurruka jatetxean egin zuten kinto bazkariko irudia.

Iragarkiak

Pisua salgai Soraluzen

Sukaldea eta komunak amueblatuta. Garaje eta solairuartekoa eta txokoa (144 m²). Tel.: 615 77 99 20

Pisua salgai.

Gipuzkoa etorbidea. 3 gela, egongela, komuna, despentsa, sukaldea eta ganbara. Tel.: 943716018 /618186639 (M^a Jesus /Leire)

Galdutakoa

Kantu afarian jertse urdin iluna, marra grisakin, geratu zen afaritarako erabili ziren eserlekuen artean galduta. Inork topatu baldin badu deitu beza mesedez 652754074ra edo SMS bat idatzi. Eskerrikasko.

jaiotakoak

GORKA PÉREZ-YERZA ETXABE
JON LÓPEZ OYA

PLACENCIA
KONTSUMO KOOPERATIVA

Esku eskura ! Telf.: 943 75 13 45

Etxabe Harategia

Euskal txahalkia-Bildotsa

Merkatu Plaza
6-7 Postuak
Telef. 943752375

Zer irizten dotsazu?

Birziklapenaren kultura gero eta errotuago dago gure gizartean. Plazentziatarrek gai honen inguruan duten eritzia jakin nahi izan dugu: ia birziklatzeko ohiturarik duten eta dauden zerbitzuak behar bezain onak iruditzen zaizkien

Birziklatzen duzu? Zer gabezia ikusten duzu zerbitzuetan?



Enara Agirre
22 urte ikaslia

Asko, oso maniatikoa naiz horrekin eta etxian egitten dogu. Olixua ez dakit birziklatzen dogun, ze ni ez naiz sukaldian ibiltzen. Baina beste guztia bai, bakoitzak bere ontzixa dauka eta gero bere kontenedorera botatzen dogu.



Mikel Hernández
16 urte ikaslia

Ez daukagu ohiturarik birziklatzeko. Etxian ez dogu zaborrik banatzen. Botilak bai, botatzen dittugu bere kontenedorian baina bestia ez dogu egitten.



Ibon Muguruza
36 urte igeltserua

Bai, egitten dogu eta olixua eructen dau andriak ostegunero. Nere ustez olixuanak behintzat, astian bi aldiz pasau bihar leuke ze gutxi iruditzen jata astian behin.



Rakel Iraola
50 urte etxeoandria

Bai dana birziklatzen dot eta ostegunero olixua eructen dot. Nere keja da kontenedoriak beteta egoten dirala eta askotan ezin izaten dala basurarik bota.



Edurne Labiano
73 urte jubilatua

Bai, nik dana birziklatzen dot eta amorru haundia emoten dosta kamioiak gehixao ez pasatziak. Askotan eduki bihar izaten dittut botsak etxian, ze kontenedoriak beteta egoten dira. Ez dakit jentia zergatik ez daben berziklatzen, ez dot ulertzen.



Javier Argote
37 urte soldatzailea

Egun gutxi daroiat hamen baina banoia poliki poliki ikasten. Ez dakit gauza bakoitza ze kontenedorera bota bihar dan baina irakurri egitten dot, amaginarrebak hola agindu zostan eta.

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!



Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

Instalaciones Kalebarren S.L.



GAS INSTALAKUNTZAK
ETA PROIEKTUAK
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA
ITURGINTZA OROKORREAN

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES

Ikastetxeko jolastokia estaltzeko proiektua lehiaketara

Ekainaren 8eko Udalabatarrean Ikastetxeko jolastokia estaltzeko proiektua lehiaketara aurkeztea erabaki zuen Udalbatzarrak. Proiektuak 186.687 euroko gehienezko aurrekontua izango du eta presazko tramitazioz, boletinean argitaratu eta 13 eguneko epea izango da hautagaitzak aurkezteko. SA-Hak taldeak, kontra bozkatu zuen eta proiektua gainontzeko taldeekin eta hezkuntzako eragileekin adostu ez izana kritikatu zuen, azken hauek eskatu bezala 10 metro gehiagoko estalpena ez egiteagatik. PP eta PSE-ko zinegotziak ez ziren batzarrean izan.

Udalabatar berean, Unanue erai-kuntza enpresari Errabal kaleko 17. zenbakia (barrenekoa) Errekalde kaleko 15-17 zenbakiko orubeengatik trukatzeko erabakia hartu zuten aho batez. Azpimarratzekoa da, Udalak Errekalde kaleko orube horietan duen jabetza partekatua dela. Etorki-zunean, Errabal kaleko lokalean



Udaltzainen bulegoa jartzea da Udalaren asmoa.

Bestalde, Izartu planaren baitan herriko parkeak haur jolasez hornitzeko erabakia hartu zuen Udalak. Horrela; Serafin Atxotegi, Arrizabaleta, Gipuzkoa Etorbidea, Txurruken eta Estazioan (azpikoan eta gainekoan) ziburu berriak jarriko dira. Guztira 85.938 euroko aurrekontua izango dute lanok.

Lokalak etxebizitza

Udalak, etxeazpietako lokalak etxebizitza bihurtzeko epea luzatu du beste bi urtean.

Arautegian zehaztapen berri bat ere egin da; eskaera onartu dadin, lokalaren perimetroaren %50ak inungo eraikinek inguratu gabeko izan beharko du.

Margo lehiaketa



Joan den Maiatzaren 29an ospatu zen kaleko XII. margo lehiaketa. Ainhoa San Juan (*Deba*), Asier Martínez Alcocer (*Soraluze*) eta Silvia Loscos (*Soraluze*) izan ziren 3 sarituak gaztetxoek kategorian. Helduenean berriz, Esteban Oroz (*Eibar*), Carlos Espiga (*Bilbo*) eta Juan José Altuna (*Bergara*) saritu zituen epaimahaiak. Sari berezia, Soraluzeko lehenengoari zegokiona, Rosario Fernándezek eskuratu zuen.

Kartel lehiaketa

Kultura eta Gazteria Batzordeak aurtengo Jaietako kartel lehiaketa abian jarri du. Aurkezten diren kartelek 31 zm-ko zabale-
ra eta 45 zm-ko luzerakoak izango dira eta nahi adina kolore eramango dute. Kartelak aurkezteko azken eguna ekainaren 24a izango da, Udaletxeko bulegoetan. Informazio gehiago bertan jaso daiteke.

Liburuzain lan postua

Liburuzain eta artxiboko laguntzaile plaza
Egun osokoa

Eskatzen da:

- Euskarazko 3. Hizkuntza eskakizuna.
- 2. Mailako L.H.
- Unibertsitateko sarrera gainditua izatea.

Gaiak:

- Legislazioa.
- Liburutegi-artxiboko gaiak.

Eskariak egiteko epea:

- EAOn argitaratu eta ondoko 20 egunetan.
(Egunotan argitaratzekoa da)

Informazio gehiago:

Soraluzeko Udala Tel.: 943 75 3043 E-maila: udala@soraluze.net



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren, 10
Telefona 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefona 943 75 13 99
SORALUZE

Telefona 75 24 09
ARRANO
tabernia

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU

ELUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK
etxera

ASTE BERDEA SORALUZEN

Ekainaren 5ean Ingurumenaren Nazioarteko eguna zela haintzat hartuta, aste berdea antolatu dute Debegeesak eta Jaurlaritzak erkidegoko 100 herri baino gehiagotan. Soralezeko egitaraua ekintzaz betea egon da. Institutoko ikasleek, hondakineri buruzko azterketaren emaitzak aurkeztu zituzten maiatzaren 31n eta ekainaren 8an, eguerdian, urari buruzko jokoa garatu zuten Plaza Barrian. Ordu berean, loreak doan banatu ziren Plaza Berrian, dotoreen apaindutako balkoien leheiaketa bizperetan. Arratsaldean, berriz, urari buruzko antzerkia plazaratu zen. Aste berdea, Uztailaren 3an amaituko da, Deba ibaira egingo den irteera gidatuarekin. Deba ibaia eta bertako flora eta fauna (*urkiak, haltzak, zozoak, txantxangorriak...*) ezagutzeko aukera izango dute animatzen diren herritarrek. Izen ematea ekainaren 23 a baino lehen egin beharko da.



"Ezagutu zure ibaia" programan izena emateko, bete ezazu honekin batera doakizun kupoia, eta eraman ezazu udaletxera, edo deitu 943 820 110 telefonora edo e-posta idatzi helbide honetara: agenda21@debegesa.com. Harremanetan jarriko gara zurekin.

Izena _____
Abizenak _____
Helbidea _____ Telefonoa: _____
Posta Kutxa _____ Herria _____

Galipoteko jaia



Galipoteko jaia ekainaren 18an ospatuko da. Antolatzaileek honako egitaraua prestatu dute:

- 13:00etan salda eta txorizoa Plaza Barrixan.
- 15:00etan bazkaria Galipotean (*izen ematea Gila, Gaztelupe eta Arranoan*)
- 19:00etan musika kontzertua Galipotean (*Euskal Musika Tradizionala, Bossa Novak, Fadoak...*)

LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g ff: 943752150
138 Postakutxa Faxa: 943752118

SORALUZE



Pascual CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

Bilketa selektiboa, egunean egunean errotzen

Gizakiok eguneroko bizitzan sortzen ditugun hondakin solidoen zati haundi bat berziklatu daitezkeen materialez dago osatua. Zenbaitzuek, irakasleek eta, uraren zikloarekin parekatzen dute; ura behin eta berriro erabiltzen baita. Bilketa selektiboaz ari garenean, herritarrek berak dira produktu berreskuragarriak sailkatzen dituztenak, zabor desberdinak dagozkien edukiontzietan utziaz. Berziklapenaren helburuak desberdinak izan daitezke: energia eta baliabide naturalak aurrezteak, lurperatu beharreko hondakin-bulumena murrizteak eta ingurumena babestea besteak beste. Ale honako erreportaian hondakin desberdinez eta Soraluzetarrok berauek selektiboki biltzeko dauzkagun aukeren berri eman nahi izan dugu

Hiru igluak: berdea, urdina eta horia.

Daltonikoez ez beste guztiok asmatu behar genuke edukiontzi bakoitzera zer bota behar dugun. Hala ere, akatsak egiten ditugu eta mankomunitateko datuen arabera, edukiontzi horira botatzen dugun %22 ez da bertara bota beharrekoa. Beira eta papera sailkatzeko ohitura gehiago dago eta hor ez da hainbeste akats izaten.

Zaborrontzi klasikoa, berdea

Zakarrontzi berdeetara botatzen dugun hondakinetatik ia erdia beste hiru igluetara bota beharrekoa da.

Garbiguneak, danetik botatzeko aukera

Garbiguneetan hondakin mota guztiak jasotzen zaizkie partikularrei, produktu arriskutsuak izan ezik. Debararrenan 4 garbigune daude: Eibar, Ermua, Deba-Mutriku eta Elgoibarren.

Ekogras: puntu berde mugikorra

Hileko lehenengo ostegunetan, puntu berde mugikorra izenaz ezagutzen den kamioia Erregetxean egoten da goizeko 9etatik eguerdiko 13:00etara bitartean. Bertan, erabilitako olioaz aparte, beste makina bat hondakin jasotzen da (*taulan ikusgai*). Produktu hauek mankomunitateak azpikontrataturako Ecogras enpresara doaz.



Gizakiak sortzen dituen ia ondakin guztiak berzikla daitezke

Berziklatzen duguna datuetan

HONDAKINA	SORALUZEN	DEBABARRENEAN
Beira (edukiontzi berdean) 2004 (urtarriletik apirilera) 2005 (urtarriletik apirilera)	36´317 kg 28´388 kg	543´493 kg 574´226 kg
Ontzi enbaseak (edukiontzi orian) 2004 (urtarriletik maiatzera) 2005 (urtarriletik maiatzera)	7´436 kg 8´253 kg	161´700 kg 161´705 kg
Erabilitako erropa (edukiontzi zurian) 2004 (urtarriletik abendura) 2005 (urtarriletik martxora)	2´320 kg 2´272 kg	44´229 kg 34´622 kg
Papera eta kartoia (edukiontzi urdinean) 2004 (urtarriletik maiatzera) 2005 (urtarriletik maiatzera)	45´693 kg 40´231 kg	729´930 kg 695´110 kg

<< Hileko lehenengo ostegunetan, puntu berde mugikorra izenaz ezagutzen den kamioia Erregetxean egoten da >>

Ruben Ortega

(Mankomunitateko Ingurumen Arduraduna)



ELKARRIZKETA

Ruben Ortega

-Nora eramaten dira biltzen diren hondakinak?

Bakoitza dagokion berziklatze plantara. Debabarrenean ez daukagu holako plantarik eta kanpora eramaten ditugu: Zornotzara, Legazpira, Arabara...berziklatzen ez dena, hau da, zaborrontzietara doana, Azpeitiko Lapatz zaborte-gira eramaten dugu. Bertan lurperatu egiten da.

-Ondo erabiltzen al ditugu edukiontziak?

Egia esan, nahiko ondo gaude, beste komunitate batzuekin alderatzen badugu.

Hala ere, Lapatzera eramaten dugun hondakinen ia erdia berziklatzera eramatekoa da. Hortaz aparte, oinarrizko 3 igluetara eramaten diren hondakinen artean, beti gertatzen da baztertze bat. Legazpira (*enbase plantara*) iristen denaren %22a edo ez litzateke bertara eramane behar. Beiraren eta paperaren berziklapen kultura errotuago dago.

-Garbiguneetara jente asko joaten al da?

Edukiontziak gehiago erabiltzen dira, hurbiltasunagatik erosoago-

ak direlako herritarrendako. Hala ere joaten da jentea, praktikoak delako batez ere. Hondakin mota asko eramane daiteke batera: etxean obrak egiten direnean, etxeko altzariak edo trasteak, fluoreszen-teak, bateriak, piturak, disolbatzaileak eta antzerakuak.

-Zenbatero pasatzen dira kamioiak?

Zabor kamioiak egunero pasatzen dira. Kamioiekin batera beste furgoneta txiki bat "Txinoa" ere pasatzen da. Honek edukiontzi kanpoan uzten diren zaborrak jasotzen ditu.

Gainontzeko edukiontziak hustutzera astean behin pasatzen dira; baita industrigune eta baserrietara ere.

-Organikoak birziklatzeko aukerarik ba al dago?

Diputazioak Pigrug plana jarri du martxan, zabor organikoarekin konposta egiten saiatzeko, baina momentuz plana baino ez da. Beste zenbait herrialdetan banatu egiten dira materia organiko konpostablea eta berziklatu ezin den materiala. Material organikoa biometanizazio planta batera eramaten da. Europa mailan, zenbait herrialdetan, Alemanian eta Suizan kasu, emaitzak onak izan dira. Italian eta Frantzian ostera, txarrak.

- Zaborte-giak edo erraustegiak?

Errezena hondakinak bota eta tapatzea da. Beste arazo bat da hamen herriak alkarengandik oso gertu daudela eta zer egin holako-etan?

Erraustegiak? Ez dakigu zein den aukerarik onena, eta uste dut asko kostatuko zaigula jakitea.



Ekainaren 2an jaso zirenak

erabilitako olioak	126 litro
motor olioak	4 litro
kalkulagailuak	1
telefono kargatzaileak	4
ordenadore kartutxoak	3
grabatzeko zintak	1
fluoreszente /bonbillak	8
TB, musika mandoak	1
pilak	100
radiografiak (<i>plakak</i>)	125
irradiak	3
aerosol ontziak	11
erlojuak	9
telefono mugikorak	3
poziña(<i>arratoiendako..</i>)	1
aparatu elektrikoak (<i>telebista, likuadorak, mikroinak, kafeterak, baskulak, VHS, Plantxak</i>)	16

Ekainaren 2an, 83 lagun hurbildu ziren hileko lehenengo ostegunetan erregetxean egoten den punto berde mugikorrera

VIDAL
frutadenda

Etxaburueta 2
Tel. 943752055

Bolia
taberna

Etxaburueta
Tel.: 943 75 11 04
20590 Soraluze

Euskara informala, hitzaldiak eta lehiaketa


Kantu afaria eta Haurren Euskal Jaia igarota, datorren astean, euskara informala lanketa eta sustapenaren inguruko bi hitzaldi eta lehiaketa bat izango dira.

Lehen hitzaldia, Badihardugu elkarteak argitaratu duen "Berbeta Berua" dagokiona izango da, martitzenian 19:30etan. Bigarren hitzaldia eguenean egingo da eta Kike Amonarriz umoregile ezagunak eskeiniko du, "Eske guk hola eitten dou berba, bale?" izenarekin. Bi ekitaldiok Gaztetxean egingo dira.

MINGAIN-BERO LEHIAKETA

Mingain-bero lehiaketa ekainaren 18an jokatu da. Lau hankabikoz osatutako bost talde lehiatu dira.

Egun batzuk lehenago 60 esamolde biltzen dituen zerrenda bat helaraziko zaio talde bakoitzari. Lehiaketan musikari eta bertsolarien laguntzaz, koplak entzun eta ze esamolderi dagokion asmatu beharko dute (*zerrendarik gabe noski*). Lehiaketa, tabernaz taberna egingo da eta Galipoteko jaiarekin bat eginaz eguerdian bazkaria izango da.



FREXXKUE esanahi bildumatik

Oh Happy day Lizarran

Ezoziko Ama Abesbatza Lizarran izan zen ekainaren 4an. Bertan, Lizarrako Udaberriko Ziklo Koralarren barruan kontzertu arrakastatsua eskeini zuen. Abesbatzaren hurrengo emanaldia jaietako kontzertua izango da, Uztailaren 23an



Argazkia: Juanma Berrueta

Ezoziko jaiak domekan

Domeka honetan ospatuko dira Ezoziko jaiak. Aurten, antolatzeleek egun bakarrera murriztu dituzte jaiak. Egitarau hau prestatu dute:

9:00etan: S.K.B.rekin mendi irteera Gila zubitik

12:00etan: Mendoz eta Bizkairekin ongi etorria finalistei. Salda eta txorizoa.

13:00etan: Meza eta herri kirolak.

15:30etan: bazkaria Armendin.

17:30etan: zezentxoak, zalditxoak, Mendoz eta Bizkai.

18:00etan: III. Bolo txapelketa.

Musika eskola

Ekainak 17an kurtso amaierako kontzertua eskeiniko dute Musika Eskolako ikasleek Plaza Zaharrenean. Gaueko 22:00etan hasiko den kontzertuan, Musika Eskolan irakasten diren instrumentu zein musika mota desberdinak entzun ahal izango dira: herrikoiak, lasaiak, klasikoak, Abesbatzarenak, martxosoak zein blues-ak.

Kontzertua gaztetxean

Zapatu honetan, ekainak 11, kontzertua eskeiniko dute Gaztetxean Ezozi bideko parkeko lokaletan ensaiatzen duten zenbait taldek. Kontzertuaren helburua lokalerrak ahots ekipo berria erosteko xoxak etaratzia izango da

Ipuin lehiaketa

Datorren ekainaren 16an banatuko dira aurtengo ipuin lehiaketako sariak. Aurtengo epaimahaia Pil-pilean-eko, 2 eskoletako, AEK-ko eta Udaleko ordezkari banarekin osatua egongo da. Ekitaldian, azken 4 urteetan saritutako lanekin egindako liburua ere banatuko da.



**HNOS. BENITO
ANAIK**

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

EDURTZA Kafetegia

Taberna eta jatetxe zerbitzua



**Eguneroko
menua eta
pintxoak**

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

Maite Narbaiza

Atzegiko delegatua debabarrenean

Orain dela 45 urte familia batzuk seme-alaba desberdin batzuen eskubideen alde borrokatzeko bildu ziren, gaur egun ATZEGI bezala ezagutzen duguna sortuaz. Adimen urritasuna duten 4 plazentziatarrekin egon gara: Andoni, Bea, Lierni eta Xabirekin. Argazkia etara diegu eta ondoren Maite Narbaiza elkarrizketatu dugu, Atzegiko delegatua Debarrenean.

-Zein da aurtengo kanpaina helburua?

Alde batetik Atzegiren errealitatea zabaltzea, familixak biltzen dituan elkarte moduan. Bertan familixak alkarren laguntza topatzen dabe euren senidian onarpen prozesuan. Bigarren helburua Atzegizale kopurua haunditza da. Jentia sensibilizatza nahi dogu, desberdintasuna zeozer positibo moduan ikusi daixan.

-Nolakoak dira adimen urritasuna duten pertsonak?

Bestion premiña berdiñak dakez. Oso afektiboak dira, umore onekuak, zintzuak, gardenak eta ez dabe tranparik egitten. Kariñua bihar dabe, eta laztan eta besarkada asko emoten detse alkarri. Familixan, haserreka hasiez gero, triste jartzen dira. Maitasuna



<< Atzegi: Desberdintasunek bat egiten gaituzte >>



egotea nahi dabe, rollo ona. Ez detsue kalerik egiten eta oso konstantiak dira.

-Gizartea desberdin hasi al da ikusten pertsona hauek?

Zorionez bai. Lehenago ignorantzia haundixa zeguan. "El tontito" eta holakuak esaten ziran euren gaitik. Gauzak asko aldatu dira, onerako, baiña lan haundixa dago egitteko. Lan munduan erabat normaltasunez integratzen diranian izango da benetako aldaketia.

-Zer aukera eskeintzen dau Atzegik?

Atzezin darenak lanian dabiz. Gero, lanetik urten ostian ekintza desberdiñak egitten dira. Eibarren daka-gun lokalian ordenadore, dantza, sukaldaritza eta antzerako ikastaruak egitten dira.

" Jentia sensibilizatza nahi dogu, desberdintasuna zeozer positibo moduan ikusi daixan "

-Zenbat Plazentziatar da Atzegi elkartekoa?

14 familixa dira bazkide, holako seme-alabaren bat dakenak. Beste 18 familia dare kolaboratzaile moduan kuotak ordaintzen eta beste 40 pertsona atzegizaliak dira.

-Zela egin leike atzegizale?

Atzegizale egittiarren ez da dirurik eskatzen. Pertsona horren integratza erreten laguntzia eskatzen dogu bakarrik. Dendetan, tabernetan...darenian, adimen urritasuna daken pertsoneri laguntzeko prest dagan jentia bihar dogu. Atzegizale egitteko telefono honetara deittu leike: **943 75 1471**. Oso aberasgarrixa da; asko ikasten da euren gandik.

Ion Murgizu Pinturak

MARGOKETA OROKORREAN

Empapelatuak

Estukoak

Fatxadak

Eskilarak eta patioak

Pintura industrialak

Tlf.: 943 75 1324

Mug.: 652 777 030

Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

JAVIER ALONSO ZELAIETA

434 ZENG.KOL

HORTZ
KLINIKA

MEDIKU ESTOMATOLOGOA



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613

ERREALZALEEK IRABAZI ZUTEN DERBIA



Hilaren 4an jokatu zen Athletic eta Errealzale berteranoen arteko derbya. Umore onean eta eguraldi ona lagun, bi taldeetako 27 jokalariek euren trebeziak erakutsi zituzten Ezoziko Futbol zelai gainean. Azken emaitza 5 eta 2koa izan zen Errealzaleen alde. Errealeko

goleatzaileak Plaentxi(2), Joseba Expósito, Oscar de Miguel eta Lamariano izan ziren. Athletic taldeko bi golak berriz, Miguel de la Cruz "Indio" errealtzaleak sartu zituen. Partido bukaeran lagunarteko poteoa eta afaria izan zuten; astelehenean axubetak. Arbitro Jose Mari Gomezek jardun zuen.

Pelota txapelketa aurrera doa

Asier eta Iñakiren omenezko IV. pelota txapelketak aurrera darrai. Aurtengo txapelketan 54 pilotarik eman dute izena eta osatu diren 27 bikoteak bost taldetan banatu dira. Maiatzaren 14 az geroztik 55 partidu jokatu dira. Lehenengo kanporaketa honen ostean, 16 bikotez osutako ligilatxoak jokatu da. Partiduak San Andresko pilotalekuan jokatzen dira, asteburue-



tan zein astebarruan. Azkenengo partiduetako emaitzak aldameneko zutabearen daude ikusgai.

EMAITZAK

FLUTBITO TXAPELKETAN

Fronton T., <i>Hola Dok</i>	2 - 5
Los Cracks, <i>Supertorpedos</i>	4 - 3
Guri-guri, <i>Gamusinos</i>	5 - 1
Gaztetxe, <i>Izenbarik</i>	2 - 1
Babajana sexy, <i>Artifices</i>	2 - 4
Mendots, <i>Ballesta T.</i>	2 - 7

ESKU PILOTAN

Atxotegi, Deba Arroko txapelketan	
- <i>Atxotegi-Portu</i>	
- Azkarate-Azkarate (Oñati)	22 - 12
- <i>Atxotegi-Portu</i>	
- Elorza-Garate (Elgeta)	22 - 4
Itziarko 4 terdiko txapelketan	
- <i>Atxotegi, Urdanpilleta</i>	22 - 9
Iñaki jauregi, Usurbilgo txapelketan	
- <i>Dominguez-Bengoetxea</i>	
- Erroizenea-Jauregi	22 - 13

Pelota txapelketan

- Jon Gallastegi- Eneko "Topet"	
- Argoitz- Nagore	22 - 15
- Loiola "Elosu"-Osto	
- Ander Epelde- Gorka Tornos	22 - 19
- "Antoine" Calles-Unai "Mendotz"	
- Zuhaitz-Zigor "Orbe"	22 - 10
- "Kiru I"- "Limoi"	
- Gorka Varela-Ander Moya	22 - 19
- "Pontxi"- "Txapel"	
- Loiola "Elosu"- Osto	22 - 9
- Erlei-Aitor Fernandez	
- Zuhaitz- Orbe	22 - 17
- Mikel Axpe- Haritz "Muneta"	
- Eneko Beretxi-Gorka Oregi	22 - 11
- Suhar "Uma"- Joseba Expósito	
- Argoitz-Nagore	22 - 11
- Asier Fernandez- Xabier Rodriguez	
- Jon Gallastegi-Eneko "Topet"	22 - 9
- "Antoine" Calles- Unai "Mendotz"	
- "K3 I"- Ander "Limoi"	22 - 13



Barra kargadore automatikoak eta makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5

Tfnoa 943 75 18 91

Faxa 943 75 24 58

E - maila: etxehun@teletel.es

etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE

Gipuzkoa

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza Jabe Elkarteak Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.

Tlfnoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze

GIPUZKOA

GAZTELUPE
taberna



tel: 943 75 20 81



Kiru Muntaiak S.L.

Blas Elizburu Kortabarria
Sukalde, enpotratu eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Amillaga, 5 20750 Bergara

Tfnoa 943 76 99 85

Eskuko tfnoa 615 70 27 65

Psikodelia Ongal

RKZULO herri mugimenduko musikariek kontzertu desberdinak eskeiniko dituzte datozen aste-etan Lehenengoa zapatu honetan izango da, Gaztetxean., Datorren asteko zapatuan Galipoteko jaia ospatuko da eta Uztailaren 16an berriz, RKZULO jaialdi nagusia. Edurne Fernández (bateria), Sara Peñalba (ahotsa), Ohiana Uribe (baxua) eta Amaia Amorrrek (gitarra) Psikodelia Ongal taldea osatzen dute. Parkepeko entsaio lokalean jarri dugu hitzordua beraien musika entzun eta galdera batzuk egite aldera..

Noiz sortu zenduen taldea?

Iez, uda ostian hasi giñan .
Lehenengo ensaiuak Gaztetxian egin genduzen, ahal zan moduan: bajuak soka bat bakarrik zekan, baterixia guk montau bihar izan genduan...desastre bat. Gero lokal honetan hasi giñan.

Zenbat taldek ensaiatzen dozue hamen?

Herriko 7 taldek.

Ze musika mota jotzen dozue?

Rock n'Rolla eta punk erako musikia.

Zuen abestixak edo bersiñuak?

6 abesti dakaguz guriak:
"Nazkauta" (Maialen Elizburun letriakin), "Mendekua", "Ez!", "Zabaldu begiak", "Tintulo" eta "Anarkia"(azkenengo hau emakumien aldizkari batetik etaratako letriakin). Bertsiño pare bat be egitten dogu, Eskorbuto eta Vómitonak.

Ze gai jorratzen dozue letretan?

Letra errebindikatuak dira: gizartia, emakumiaren egoera, askatasuna...

Beste talderen baten jotzen dozue?

Nik (Sara) Kiru, Martintxo, Dalton eta Peskan taldian kantatzen dot eta Ohianak Grifokin. Amaia talde barri bat sortziar dago.

Ze esperientzia musikal dakazue?

Euskaraokian danok hartu genduan parte (jaja..). Bestela, musika ikasketak danok dakaguz,

<< Entzuten doguzen abesti batzuk oilo narrua jartzen doskue eta hor sentimentu barrixak sortzen dira >>



Edurne, Amaia, Oihana eta Sara Ezosi bideko parkepeko lokalean.

baiña beste instrumento batzukin hasi giñan. Nik (Edurne) txistua jotzen ikasi neban, Sarak pianua eta flautia, Oihanak pianua eta Amaiak soiñua.

Zer da musikia zuendako?

Pentsatzen doguna espresatzeko modu bat. Entzuten doguzen abesti batzuk oilo narrua jartzen doskue eta hor sentimentu barrixak sortzen dira. Ensaiazera

etortzia desaogatzia moduko zeozzer da. Norberan kanziñuak jotia aparteko sensaziñua da gaiñera.

Eta RKZULO?

Ondo pasatzeko era bat da. Iniziatiba eta gogo pixkat bihar da bakarrik, lehenengo pauso hori emotia. Animatzia nahi dogu jentia, neskak batez be, gogua bada-ke hona etortzeko. Ez da bihar musiko profesionala izaterikan.



TXURRUKA
JATETXEA

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE



SALAZAR
Altzariak

Altzariak-Apaindurak

Sukaldeak - Elektratresnak

Errekalde, 7 -20590 Soraluze Telefonoa/Faxa: 943752388

Argazki zaharra



Iturria: Maite Narbaiza

Artolazabal-Arluziaga familia

Argazki honetan Artolazabal-Arluziaga familia agiri da, Ramon eta Jesus anai bixen komuniko egunian. Miguel Angelek ezin izan zeban komunikorik egin, sasoi hartan adimen urritasuna zekenek ezin izaten zeban komunikorik egin eta. Miguel Angel iez hil zan, 63 urte zituela. Argazkian etxekekin agiri da: Justino Artolazabal (*aita*), Angela Arluziaga (*ama*), eta Ramon eta Jesus Artolazabal anaien ondoan.

Lehiaketa



Zer dago faltan edo zer soberan argazki honetan?

Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke!!

Deitu

943 75 13 04 ra

Aurreko alean...



Erantzuna...:
paretako farolia faltan.

...eta irabazlea:
Haritz Ramírez

ARMENDIA
JATETXEA



Ezozi Auzoa, 11
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 10 02

Sukaldaritza tradizionala

UFALA

irish pub

Garargardoa
eta Kafea

**aukera
ugaria**

943 75 0030

BATZOKIA

Jatetxea eta Taberna



autonomoentzako eta mikroenpresetarako doako **mintegiak**

Deba Barrena

ekainak 16
ELGOIBAR

Makina Erremintaren
Institutua (IMH)

Orduetgia: **18:00-20:00**

Nola ezarri Merkataritza Elektronikorako sistemak

Erosteko eta saltzeko Internetek aukera asko ematen dizkizu.

Negozio edo enpresa txikia baduzu, Merkataritza elektronikorako sistemak nola aplikatu ditzakezun azalduko dizugu eta **nola baliatu Internet zure produktua segurtasun eta konfiantza osoz saltzeko.**

Informatzeko eta izena emateko:

902 252 595


www.miramondigital.com
cursos@miramondigital.com

Antolatzailea:



Miramón
Enpresa Digitala

Sustatzaileak :



MINGAIN-BERO

Plaentxiako Lehenengo Ahobero Lehiaketa
Ekainaren 18xan, zapatua



Kanporaketa 12:00xetan / Finala 18:00etan
Gaztetxetik urtenda herriko tabernetan zihar.

Taldiak: 5 talde

Saria: Afari edar bat

Izena emoteko: Gaztetxian, Gilan eta Arranuan edo

Pil-pileanera deittuta

Jakin ez dala jente igelik onartuko!

Ez ollotu eta emon izena! ARRE !!!



SORALUZKO
EUSKAL JAIXAK



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



ASTE BERDEA '05



Deba ibaia ezagutu

Uztailak **3**

Parte hartu eta lagun gaitzazu Deba ibaia aztertzen. Goiza baino ez duzu behar izango. Ezagutu ezazu ibaiaren flora eta fauna (urkiak, haltzak, zozoak, txantxangorriak...), eta ikas ezazu gure ibaiaren ingurumen-egoera aintzat hartzen. Horretarako irteera gidatua egingo da eta Kilimon, Sagar-Erreka, San Lorenzo, estuarioa, eta abar ezagutzeko gonbit egiten dizugu.

Izena emateko azken eguna ekainaren 23a izango da.

Irteerak **uztailaren 3an, igandea**, izango dira. NAHITAEZKOA DA IZENA EMATEA.

INFORMAZIOA

Tel.: 943 820110 • e-mail: agenda21@debegesa.com.

